

# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

### 1941

*37/2024 DEKRETUA, apirilaren 9koa, zeinaren bidez onartzen baita Euskadiko Podologoek Elkar-goaren izena aldatzea eta, haren ordean, Euskadiko Podologiako Elkargo Ofiziala izena jartzea.*

Autonomia Estatutuaren 10.22 artikuluan arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eksklusiboa du elkargo profesionalen eta tituludun lanbideen arloan, alde batera utzi gabe Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan ezarritakoa.

Euskadiko Podologoek Elkargoak estatutuen aldaketa onartzeko eskabidea aurkeztu zuen, eta horren ondorio da izen-aldaketa.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 28.2 eta 29.3 artikuluetan xedatuta dagoenez, profesionalen elkargoen izendapena aldatzeko, kasuan kasuko kontseilu profesionalaren txostena behar da, Eusko Jaurlaritzak dekretu bidez onartu behar du, eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar da.

Horiek oinarritzat hartuta, elkargoak egindako eskabidea justifikatuzat jotzen denez gero, indarrean diren legeetan zehaztutako izapideak bete ondoren, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 9an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskadiko Podologoek Elkargoa izeneko elkargoak izen hau izango du aurrerantzean: Euskadiko Podologiako Elkargo Ofiziala.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko apirilaren 9an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,  
OLATZ GARAMENDI LANDA.